

Izotz hockeya ♦ Paristarrek orain arteko partida guztiak galdu dituzte

Hirugarren postuan jarraitzeko moduan

Hormadik Viry hartuko du La Barren (20:30), orain arteko talderik apalena

Koldo Alduntzin

IRAILAREN 29az geroztik partidarik jokatu gabe da Hormadi. Orduan Lyon-en jardun zuen, eta 1-6 irabazi zuten lapurtarrek, nahiko modu errazean. Gero Mila-nen kontra jokatu behar zuten, baina italiarrek izandako gorabeherekin, hamar egun eman dituzte jokatu gabe. Gaur, Parisko Vyri hartuko dute, La Barren (20:30). Bederatzigarren jardunaldiko norgehiagoka da, baina Hormadiren zazpigarren partida.

Iaz jokaturiko 36 partidatatik soilik bat irabazi zuen Viryk eta beste bat berdindu. Hain zuzen ere, irabazitako partida Hormadiren kontra-koa izan zen, baina elkarren kontra jokatutako lauretatik lehena izan zen; sasoiaren hastapenean. Hurrengo hiru-retain, 6-2, 2-5 eta 3-2 gailendu ziren angelutarrak.

Aurten, alde nabarmena dute lapurtarrek Viryrekiko. Pariskoak azken postuan dira eta Angelukoak hirugarren, 8 punturekin. Iaztik zertxobait hobetu du Viryk, baina, halerre, burua altxatu ezinik dihardu. Raujon, Mo, Roger, Sadoun, Fortin eta Kivakka dira golegileak. Iaz ere Sadounek eta Roujonek bina gol sartu zituzten La Barren.

Hormadin ez du jokaterik izango Slavomir Vorobel eslovakiarrak, hiru partidako zigorra baitu. Dominique



KOLDO ALDUNTZIN

Hormadi orain arteko talde apalenarekin lehiatuko da gaur.

Sailkapena

1. Caen	10 puntu
2. Rouen	10 puntu
3. Hormadi	8 puntu
4. Amiens	6 puntu
5. Chamonix	6 puntu
6. Lyon	6 puntu
7. Reims	5 puntu
8. Angers	5 puntu
9 Viry	0 puntu

Ducharme berriro kolpatu egin zen Lyon-en, baina badi-rudi jokatzeke moduan izango dela.

Orain arte etxean erakutsitako sendotasunaz baliatuko da Hormadi Viry menderatze-

ko. Soilik Caen-ek eraman ditu bi puntuak La Barretik (2-3), baina irabazteko aukera ere izan zuten lapurtarrek. Pastilla ederki jokatzen dute gibeletik hasita, eta golegile nagusia 24 urteko Stanislas Solaux frantziarra baldin bada ere, gainerakoak ere fin dabilta arlo horretan. Raymond atezaina sasoi aparta ari da egiten, eta berarekin, Carry, Perez; Dostal, Lapinkoski, Vorobel da Gordobilek gehien erabili duen lehen lerroa. Vorobel ariko ez denez, Baldrisek edo Elorin-ek bete lezake haren lekua.

Txuri Urdin aldagelarik gabe utzi dute

Erredakzioa / Donostia
DONOSTIAKO izotz jauregian iaz hasitako berritze lanen ondorioz eta ohiko instalakuntzak erabili ezin dituztenez, Txuri Urdin taldeak Carmelo Balda pilotalekuko biltegi bat baliatu du bere ekipamendua-eta gordetzeko. 22:00etatik aurrera ez zuten, baina, han

sartzerik; eta astean bitan Angeluko hormadian gaez entrenatu eta Donostiara ordu bat aldera iristen direnez, klubeko presidente Patri Zubizarretak ordu horretan aldageletan sartzeko baimena eskatu zion Donostiako Kirol Patronatuari.

Ezezkoa jasotzeaz gain, ordea, ostegun goizean izotz

hockey taldeak han zituen tramankuluak ateratzen hasi zen Patronatua: «Ez dakigu nora, gainera». Antza, Askatuak saskibalo klubari leku gehiago egiteko hustu dute Txuri Urdinek erabiltzen zuen aldalekua. Patronatuak «gutxietsi» egin duela salatu du Txuri Urdinek: «Kale gorrian utzi gaitu».

l a b u r r e a n

■ Michael Schumacherrek azkenean parte hartuko du Malaysia eta Japoniako probetan

AURREKO astean kontrakoa esan arren, aurtengo denboraldia ez da bukatu Michael Schumacherrentzat, eta Ferrarikoek atzo jakinarazi zutenenez, Malaysia eta Japoniako probetan parte hartuko du Alemaniako pilotouak. Horrenbestez, bere taldekide Irvinerentzat lan egin beharko du Schumacherrek.

T E N I S A

■ Alberto Berasategi Sizilia txapelketako finalerdietan Albert Costarekin lehiatuko da

SIZILIAKO txapelketako final-laurdenak jokatu ziren atzo, eta Alberto Berasategik garaipena lortu zuen Hernan Gumyren aurka. Aise irabazi zion, gainera, argentinarrari: 6-3 eta 6-4. Orain finalerako txartela Albert Costaren aurka jokatuko du, hark ere irabazi egin baitzion Alberto Martini final-laurdenetan. Berastegik badaki zer den Siziliako txapelketa irabaztea, 1997an eta 1994an bera izan baitzen garaile.

■ Marcelo Riosek Shanghaiko finalerdietan sartzea lortu du, Woodbridgeri irabazi eta gero

DENBORALDIA kaskartu dioten lesioak osatuak dituela erakutsi zuen atzo Marcelo Riosek, Shanghaiko txapelketako final-laurdena irabazita. Erraz gailendu zitzaion brasildarra Tood Woddbridge australiarrari: 6-3 eta 6-3. Nahiz eta oraindik abiadura pittin bat falta zaiola onartu, finalera sartzeko moduan dela adierazi zuen Riosek partidaren ostean. Jonas Borjmanekin jokatuko du gaur finalerdia.

S A S K I B A L O I A

■ Cafes Aitona-Askatuak-ek Juventuten aurka jokatuko du gaur arratsaldeko 19:30etan

ORAIN arte Juventuten aurka ez du garaipenik lortu Cafes Aitona-Askatuak-ek, eta, hori aldatzeko asmoz, irabaztera aterako dira gaur Josean Gaska kiroldegian. Donostiako taldeak joan den larunbatean Condisen aurka izandako porroterik ondorioak atera dituztela esan zuen atzo entrenatzaileak, eta erasoan dituzten arazoak konpontzen saiatuko dela ziurtatu zuen: «Aurkarien defentsa hainbeste itxi ez dadin eta gure pibotek saskiratze errazagoak izan ditzatzen saiatuko gara».

■ Rodmanek Lakerseko ateak zabalik dituela esan du taldeko zuzendariak

BERE jarrera arduragabeagatik taldetik bota zuten iaz Dennis Rodman Lakerseko arduradunek, baina berriro taldean hartzeko prest dago Jerry Bush Lakerseko zuzendaria. «Guk erreboteatzaile bat behar dugu, eta Rodman gure taldean egon zenean 10 partida irabazi genituen jarraian. Hala ere, onartu beharra dago apustulari amorratua dela eta beti izango dela». Esanak esan, Bushek Rodman itzultzeko esperantzarik ez duela aitortu zuen, ordea.



JOSEBA OLALDE

Alaves inoiz baino erosoago errepideetan. Bidaia laburretan ere hegazkinetan bezain eroso izango dira Alavesekoak hemendik aurrera. Atzo aurkeztu zuen klubak Alegria enpresak propio egin dion ibilgailu berria. Alavesek 40 milioi ordainduko du autobusa.